

# Noaia!!!

www.noaia.com



Alokairu sozialeko sei  
etxebizitza, lehiaketa prozesuan



Igande honetan,  
Mendi Lasterketa Aginagan

# MAHUKA

arropa denda



*Udaberria Usurbilera iritsi da!*

etxebeste 3 943 361 106



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63

660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
- ERRAUSKETA eta errauts-kutzak
- Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzuak
- ASEGURU konpaini GUZTIAK, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Lekualdaketak, eskelak, urteurrenak...
- Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

# ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST

**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

## ARRASATE

APIRILAK 24 Iarunbata - 11:00

## ORDIZIA

APIRILAK 17 Iarunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

## IRUN 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

## ESKORIATZA

APIRILAK 22 osteguna - 18:00

areto nagusian

Albisteak iruditan !!

## Andatzatik Arantzazura oinez

**O**stegun Santuan, Andatza mendia eta Arantzazu lotzen dituzte oinez. Aspaldiko ohitura da. Irudian dituzue aurtengo Aste Santuan mendi martxa horretan parte hartu duten mendizaleak. Duela hiru hamarkada edo, dozena erdi bat lagun hasi ziren Andatza-Arantzazu martxa egiten. Gero Donostiakoak, Zarautz aldekoak... elkartzen hasi ziren. Eta gaur arte. Hori bai, kanpotarrak biltzen joan badira ere, urtero Usurbilgo frontoi atzetik abiatzen dira, goizeko 5:00etan. Eta Arantzazura arratsaldeko 19:00etan iristen dira. Beraz, atera kontuak. Giro onean joaten dira sikiera...



URTERO, OSTEGUN SANTUAREKIN OSATZEN DUTE ANDATZA ETA ARANTZAZU ARTEKO BIDEA.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. OR.

EGUNKARIAKOAK, ZIGORRETIK LIBRE \_\_\_\_\_ 9. OR.

HAUR ESKOLAN MATRIKULAZIOA IREKITA \_\_\_\_\_ 12. OR.

JUANJO ESTEVEZ KIROLARIA \_\_\_\_\_ 14. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
943 361 182  
USURBIL

**J.ORBEGOZO**

ITURGINTZA • GASA • BERKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789



IDOIA TORREGARAI

## Genixkiñan

Nire amak izeba Pilarri deitzen dionean, belarria adi-adi jartzen det, horrelako gauzak entzuten ditudalako:

- Aizan Pilar, noiz jun bihar diñau hortik euna pasatzea?
- Lehengo igandian Zarautza jun giñunen Joxe ta biyok. Makiña denda ikusi geñixkiñan: Jesus! Han bazionen denetik!
- Bazkaldu're earki in giñin; plater earrak atea xixkiunen.
- ...

Inbiriya. Horixe da sentitzen dudana bi ahizpak hizketan entzuten ditudanean. Konplizitatea, gertutasuna, konfidantza eta goxotasuna nabaritzen ditut "xixkiunen" eta "genixkiñan" horien atzean. Tamalez, nik ez nuen noka ikasteko aukerarik izan. "Aizan"-etik aurrera galdu egiten naiz. Ez zidaten egin. Eta ni baino gazteagoei ere berdintsu. Egongo da etxeren bat edo beste mantendu dena, baina orokorrean nire kinta eta ondorengoak "zuka" hazi gara. Mutiletan, berriz, Usurbilen hika sasoi ederrean

dagoela nabaria da. Ni baino 20 urte gazteagoak diren ilobek txiki-txikitatik erabiltzen dute, eta kaxkoan buelta bat emanaz gero, mutillakoa ia denak beraien artean hika egiten dutela nabaria da. Eta zer nolako gozamina ematen duen horrek. Ez dakit ba, jatortasuna, sanidatea transmititzen dit.

Nesketan ordea ez da berdina gertatzen, eta ez dakit zergatik, izan ere, ni baino urte gutxi batzuk zaharragoak direnei (berrogeialdian sartutakoak) entzuten diet noka lasai ederrean. Nere amonak noka egiten zien amari eta izebari, baina neri berriz, amak ez dit sekula egin. Zer gertatu zen ba tarte horretan tradizio hori eteteko? Zergaitia galdetzen diodanean "eztakit ba" esaten du, eta noka egiteko eskatzen badiot ezinezkoa da, parrez lehertzen hasten da lotsatuta eta "zugin etzait ateatzen", botatzen dit.

Nik ere alaba daukat, baina noka ezagutzeko amonak izeba Pilarrekin noiz hitz egiten duen zain egon beharko dugu, belarria adi-adi.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Aintzane Ezenarro Aralarreko parlamentariak hitzaldia eskainiko du datorren astean Udarregin

Usurbilgo Aralar udal taldearen ekimena izan da. Datorren astean, apirilak 20 asteartea, Aintzane Ezenarro Eusko Legebiltzarreko parlamentariak hitzaldia eskainiko du Udarregi ikastolan. "Ezker abertzale alternatiboa sendotzen" izenburua du Aintzane Ezenaroren solasaldiak.

Apirilaren 20an asteartea, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Aintzane Ezenarro Aralarreko legebiltzarkideak "Ezker aber-

tzale alternatiboa sendotzen" izeneko hitzaldia eskainiko du.

### Zinegotzi eta legebiltzarkide

Aintzane Ezenarro Aralarreko bozeramailea da Eusko Legebiltzarrean. Kazetaritza eta soziologia politikoan lizentziatua, 2003ko udal hauteskunderatik zinegotzia da Getarian, eta legebiltzarkidea 2005etik hona. Azken legealdian, Aralar taldeko bozeramailea da Eusko Legebiltzarrean.



AINTZANE EZENARROREN HITZALDIA UDARREGIN IZANGO DA.

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

USURBILGO ATARIA

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

## Alokairu sozialeko 6 etxebizitza eskuratzeko aukera

**U**dalak alokairu sozialera bideratuko ditu Maixu Etxeko sei etxebizitzak. Eskakerak aurkezteko epea zabalik dago maiatzaren 6ra arte. Udalean eskura litezke argibideak eta eskaera orriak. Bizilekuok zozketa bidez esleituko dira.

Gernika ibilbidea 13an Udarregi ikastola ondoan kokatu eta Maixu Etxe izenez ezagunagoak diren udal jabetzako sei etxebizitzetako maiatzaren 6a arteko lehiaketa abiatu du Udalak. Oinarriak kaleratu eta izen emateko epea zabaldu du. Eskakerak udal erregistroan aurkezteko interesdunek maiatzaren 6a arteko epea dute. Leku berean eskura litezke eskabide-orriak eta hautatze-prozedura arautzen duten pleguak. Zozketa bidez esleituko dira sei bizilekuak.

### Babes bereziko gizarte sektoreek, lehentasuna

Etxebizitzak 80 metro karratukoak dira eta hiru logela dituzte. Oinarri arabera, Usurbilgo herritarrek parte har dezakete lehiaketan. Hiru etxebizitza gorde dira babes bereziko gizarte-sektoreentzat; adin txikikoak dituzten guraso

bakar, banandu, dibortziatu, genero-indarkeriaren biktima, alargun edota lau kideko sendientzat. Etxebizitza bana, kupo orokorrerako, babes bereziko beste gizarte sektoreentzat (30 urtetik gorakoak, ezindu psikikoak) eta lau kide baino gehiago osatutako sendientzat.

### Kontratua, urtebeterako

Errenta kontratuak urtebeterako sinatuko dira, eta urtero luzagarriak izango dira bost urte bete arte. Kontratua amaitzean, maiatzerrek etxebizitza Udalaren esku utzi beharko dute berriz. Ordaindu beharreko kuota, maiatzaren dirusarreraren arabera izango da. Hau ere, urtero berraztertuko da.

### Eskakerak aurkezteko epea maiatzaren 6a arte

Lehiaketan parte hartzeari dagokionean, etxebizitza babestuetara aurkezteko ohiko baldintzak bete behar dira: etxebizitzarik ez izatea, diru-sarrera jakin bat... Beharragatik bada, etxebizitza duten herritarrek ere aurkez litezke lehiaketara, baina alokairuko etxebizitza egokitzuz gero, berea errentan jarri beharko dute.



UDARREGI ETA AGERIALDEKO IKASTOLEN ARTEAN DAGO MAIXU ETXEA.

### Konpostaje planta, airean

**A**tsobakar eremuan kokatu nahi Aden konpostatze egitasmoa gauzatzeko, Arau Subsidiarioetan udalbatzak onartua duen aldatetari lotuta, kautelazko etendura ebazpen bana jaso du Udalak. Bi erakundeetatik jaso du jakinarazpena, martxoaren 30eko osoko bilkuran gobernu taldeak berri eman zuenez; Foru Aldunditik eta Lasarte-Oriako Udaletik.

## Ika-mika !!

**B**i hilabete baino gehiago pasatu dira ezker abertzaleak barne eztabaida bukatu zuenetik, eta hausnarketa-oren ondorioak eta hurrengo urteetarako apustu politikoa hezurramitzen dituen Zutik Euskal Herria agiria plazaratu zuenetik.

Ez da gutxi azken hilabeteetan egin dugun lana, baina, eztabaida amaituta, lana orain hasten dela esan dezakegu.

## Aupa lagun

Dudarik gabe, ezker abertzalearen ekimen politikoa ari da panorama eta egoera politikoa astintzen, eta horretan jarraitu nahi dugu.

Eztabaida amaituta, eta ildo politikoa zehaztuta, datozen hilabeteetarako plangintza ere prest dago, eta, orain, plangintza hori zureganatu nahi dugu. Hurrengo hilabeteetan emango ditugun pausoak jasotzen dira bertan. Plangintza naziona-

laz gain, herriko plangintzaren berri ere eman nahi dizugu. Beraz, eskutitz honen bidez apirilaren 21ean egingo dugun herri batzarrerako deia egin nahi dizugu.

Eguna: apirilak 21, asteazkena.

Ordua: 19:30.

Tokia: Sutegi kultur etxea.

Han ikusiko garelakoan,

Usurbilgo ezker abertzalea

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

Otar-Goxo  
Elkargutak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

BORDATXO  
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

## KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Udaberria



**E**derra da benetan euritsua izan ez arren, hotza izan den neguaren ostean eguzkia ateratzen ikustea, goxatzen duela sentitzea eta udaberria usaintzea.

Azken egun hauetako eguraldiarekin jendea ere mugitzen hasten dela ohartzen zara; baserrietako baserrietarrak lurak prestatzen ikusten dira goldearekin edo barazkiak landatzen edo haziak ereiten... Animaliak ere gustora kanpora atera dituztelako, salto eta brinko batetik bestera. Txoriak zer esanik ez, kantu kontari batak besteari, zuhaixketako oraindik adar biluztuetan saltoka... Eta gu ere berdin, eguraldiak goxatu orduko oinetako egokiak jantzi eta paseo bat ematera, mendi aldera, lehen eguzki izpiak hartzera...

Aitortu behar dut nik ere berdina egin dudala egun hauean eta gozatu dut, ederki gozatu gainera. Astelehen Santu egunean Andatzara joatea erabaki nuen. Soinean neramanaz gain beste ezer barik, hantxe abiatu nintzen lasai ederrean tipi tapa Igartzazabal baserritik barrena eta oraintxe Puelara iristen ari nintzela: "Mekauen, harrapatu zeak!!". Kukua kantari alajaina eta nik poltsikoetara so egin eta



deus ez. Kontuak kontu, ez al da ederra kukua kantari somatzea? Ez al zaizue iruditzen geroz eta gutxiago entzuten zaiola kukuari? Zergatik ote? Nik ez dakit zergatik izango ote den baina pentsatzen dut naturarengan egiten ari garen kalteak zeresanik izango duela, beste behin ere.

Norbait perezak jota egongo balitz, animatzen dut benetan horrelako egunak aprobeztatzera eta hankak apur bat astintzeaz gain, birrikak betetzera, begiak alaitzera eta inguruaz gozatzera.

## SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Amestutako frontoia



**A**tzera begira jarri ezkerreko kostara egiten zait Santuenean frontoi bat egin behar zutela esan zidaten lehen aldia. Orduan pala bat esku bakarrez jasotzeko gai ez nintzen, baina ilusioa egin zidan. Gertuen geneukan frontoia Kaxkokoa izanda Santueneakoak, Txokoalden eta tarteka sendategian egiten zituzten pala saioak eta noski adin harekin komeriak auzotik urrutiratzeko. Urteak pasa eta frontoia auzoan oraindik egiteko. Egoerak behartuta udako opor haietan lagunak bildu, palak eta pilotak hartu eta erriberatik Txokoalderaino joaten ginen. Bakarren batzuk ausartzen ziren trenbidearen tuneletik joaten. Gaur egun pala aise jasotzen dut esku batekin, baita ezkerrekin ere, pilota lurretik jasotzeko garaian etortzen zait burura zenbat urte pasa diren Txokoaldera joaten ginenetik.

Ea ba oraingoan auzoko frontoia errealitatea bihurtzen den. Aurkituko dut norbait pilotak jasotzeko behar badut ere, baina palan apusturen bat jokatu dudala dudarik ez izan.

Bestalde, San Inazio egunean Ibai-Ondo elkarteak urteroko bazkaria antolatzen lan dezente izango du. 50. urteurrena izanda egun osorako ekintzak antolatzen ari dira jai eguna goizetik gauera arte izateko. Ea ba zer prestatzen diguten.

## ATXEGALDE

ARITZ GORRITI

## Bideak eta bazterrak

**A**txegalde non hasi eta non bukatzen da orain? Lehen ez zen zaila asmatzea. Hilerriz zaharra igaro eta Udaregi ikastola aldera igotzeko eskailera parean jarriko zuen mugarrira batek baino gehiagok. Orain ordea bidean egin dituzten bizileku berriak nongoak dira? Kaleberri edo Atxegaldekoak? Horixe bera galdetzen nion neure buruari lehengo batean Atxegaldera oinez joan eta etxe berriei begira ari nintzela. Behera begiratu, eta bizilagun berriei ordea ongi etorriko alfonbra gorria jarri zaienik ezin esan. Burutu diren lanen ondorioz, hilerriz zaharraren paretik Atxegaldera doan bidea txukundu beharrean dago. Eta ibilgailuak aipatuta, ezin ahaztu ziurrenik auzoak duen arazo nagusietakoa; aparkaleku faltarena. Ez du konponbide erraza, kaleen estutasunagatik eta noski, garai batetik hona etxe guztietan batzuek beste auto kopurua bikoiztu delako. Eta hori, orain eduki ontziririk ez dagoenik. Urtea bete berri duen atez ateko bilketak ekarri du bai txukuntasuna Atxegaldera. Eta birziklatzeko ohitura handiagoa, ontzi zaharren desagerpena, aparkaleku gehiago... Hobeto gaude... dudipe!



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Zuberotarrak: usadio bihurtzen



Urtetan errepikatzen dena, usadioa bihurtzen omen da, eta halaxe gertatzen ari da, zuberotarren eta Oria ibai ondoko jendeen artean: Urdiñarben dagoen “Bilxokua” elkarteko kideak eta hainbat aginagatar eta usurbildar elkartzen dituen afaria. Ez

da lehen aldiz aipatzen dudana gertakizuna, urteroko bilera bihurtu dugulako, baina aurtengoan ere bertan bizi izan den giroak bultzatu nau “Noaua”ko irakurleoi kontatzera, Aginagan dagoen Urdaira sagardotegian izandako festa.

Argazkia ikusi orduko ohartuko zarete Zuberoa aldean aginagatar eta usurbildarrok giro ezin hobean igaro genuela gaua. Euskara bakarra izan arren, oraindik ere bi euskalkien arteko tartea Zuberoako eta Gipuzkoako herritarroi elkarri erabat entenditzeko sortzen dizkigun arazotxoak alde batera utzirik, gauari hasiera eman genion jendeak elkar ulertzeko dagoen modurik onenarekin: euskal kantak bata bestearen atzetik kantatuz. Hala segitu genuen, Patxik bidali gintuen arte.

Aurtengoan gainera, punta-puntako bertsolaria izan dugu gure artean, Eusebio Lasarte oriotarra. Berak ere abestu zizkigun hainbat bertso eta nola ez, bere abesti xeblee-



na ere bai, italieraz, hainbeste aldiz entzun dugunok “Eusebio mi cantare” deitzen dioguna. Eusebio, une gogorak ari da pasatzen, baina pozik egon zen gure artean, beti denak bere alaitasunaz kutsatzen, eta udazkenean gurekin batera Urdiñarben egoteko gogoaz azaldu zigun. Amaitzeko esan, zuberotarren eta aginaga-usurbildarren artean antolatzen ditugun otordu eta ekitaldi hauetan guztietan atea irekita daudela gurekin joan nahi duen edozeinentzat.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Galdetu gabe



Kalean zapata garbitzea oraindik ofizio den lekua batean, fruitu eta fruitu lehor, antxume buru, erropa eta barruko erropa, jostailu, zeramika, oilo eta oilar, lehen eta bigarren eskuko oinetakoak, hortz positzoak, alfombra, musikari eta sekula garbiketarik eza gutu gabeko tailerrak eta obrako materiala atzera eta aurrera garraiatzen duten astoak biltzen diren eta larru usain barnerakoia gainera kendu ezin den kale estu baino estuago diren horietako batean: “Español, francés, italiano?” galdezka. “Vasco” erantzun ostean, “buena gente, berberes de aquí” dioten lekuan, irribarre, laguntasun faltarik ikusi ez dugun tokian, etxeak jausten dira buztina eta harria eta lastoz eginak daudelako asko. Goseak urreratzen eta ogia dakusanean, eskuak ahora daramatza gose dela jakitera emateko. “Tori ogia erdia” eta eskua luzatu du pozik. Berarekin bere bizia gorderik baleraman bezela, gurdian jaso eta eskertzeko, ageri ez zen lekutik ere, gazta atera du guri eskaintzeko.

Emakumeek burua estalita daramaten herrialdeetako bat, errepide erdian denak Bartzelonako kamixeta jantzita futbolari izateak dakartzan ondorioekin amesten dutenak. Herriko plazan txirula joz, sugeak dantzazten dituen herria, esku eta karta iragarleak beren bezeroekin bilera egiten duten lurra.

Lurralde hartako asko sufritutako seme asko jaso ditu gure lurak. Gure gizarteak, askotan, onartzen ez dituenak, noren arduraren den galdetu gabe.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Parlamentura

Aste honetan Zubietako Eskola ATxikiko hainbat guraso Gasteizko Legebiltzarrera joan da alderdi politikoei gure eskola txikia handitzeko proiektua aurkeztera eta euren babesa lortzera.



Aspaldi gabe ume eskasiagatik eskola ixtear egon ziren hezkuntzako arduradunak baina garai hartako zuzendari zein gurasoek lortu zuten Zubietak gaurdaino bere eskola edukitzea. Orain, berriz, arazoa alderantzizkoa da: ume ugari dago herrian eta eskolan leku nahikorik ez. Gurasoek 12 urtera arteko zerbitzua (Lehen Hezkuntza osoa) ematea ahalbidetuko duen eraikin-handitzearen proiektua prestatu zuten baina orain arte ezezkua eman dio alderdi sozialistaren Jaurlaritzak.

Gurasoek hara eta hona jo dute babes eske (Usurbilgo eta Donostiako Udalak, Arartekoa, sindikatuak, alderdi politikoak, komunikabideak...) eta ea bada Legebiltzarreko agerraldiak orain arte egindako lan eskerrik merezi duen emaitzarik ematen duen. Udaberria are ederragoa horrela...

# Heziketa zikloak, lan mundua eta euskara

**B**uruntzaldeko Lanbide Heziketako ikasle batzuk laster arituko dira langile enpresetan. Eta, epe batean, ikasle horietako batzuk ardurak hartzera ere helduko dira, edota enpresa berriak sortzera, beste langile batzueganako erantzukizuna izatera. Baina lan munduak ez du, orokorrean, euskaraz egiten, gaztelaniaz hitz egitera ohitu da. Gaiarekiko kontzientzia pizteko, heziketa zikloak dauzkaten eskoletako ikasleei zuzendutako hainbat hitzaldi antolatu dituzte Buruntzaldeko udalek.

Ikasle horietako gehienak euskaldun ateratzen dira euskal eskolatik; askok jaso dute, gainera, lanbide heziketako prestakuntza ere euskaraz, baina, lehen ez bezala egun, lan munduak ez du, orokorrean, euskaraz egiten, gaztelaniaz hitz egitera ohitu da. Bi errealitate horien arteko hausturak konponbidea eskatzen du, gure gizartea gero eta elebidunagoa delako, eta gazteen artean gutxi direlako euskaraz ez dakitenak.

Lan mundua ez da bakarturik bizi den entea, gizartearen sarean txertatuta egonik harekiko harremanetatik elikatzen dena, baizik. Hori dela eta, Buruntzaldeko udalek ikasleei zuzendutako hainbat hitzaldi antolatu dituzte, eta aurtengoan, gure gizartean oso hedatuta dauden hizkuntzen erabilera-ekin loturiko hainbat uste kolokan jartzea da helburua, hizkuntzen garrantziari buruz hausnartzea.

Errotuta dauden uste horien artean, besteak beste, hitzaldiaren muina diren hurrengo hauek: hizkuntza bakarra jakinda hobeto moldatuko ginatke, hizkuntza batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak dira, hizkuntzak defendatu behar dira, estatu bati hizkuntza bakarra dagokio, eta hizkuntza ahulak eta indartsuagoak daude.

Baina, usteak erdiak ustel. Hasteko esan behar da, gizakion arteko benetako ezberdintasunak ez daudela azalaren edota ilearen kolorean, hizkuntza eta kulturetan baizik, azken hauek islatzen dutelarik komunitate batek urteetan garatu duen munduaren ikuskera, eta,



BURUNTZALDEKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEK EUSKARAZ LAN EGIN NAHI DUTE.

jakina, hizkuntzak ez dira ezer hiztunik gabe, eta hiztunen eskubideak dira, beraz, bermatu behar direnak, ez hizkuntzenak. Eta hizkuntzen garrantziaren inguruan zer esan? Zein hizkuntza izango da garrantzitsuagoa norberak erabili ohi duena baino?

Hizkuntzak egoki kudeatzeari ematen zaion garrantziari neurria hartzeko, alde batetik, horretan ari diren arrakasta handiko enpresa batzuen izena aipatzea baino hobeagorik ez dago, Google, Microsoft, New Yorkeko metroa, TomTom, mundu mailan, edota Buruntzaldeko Fagor Automation - Berriola, Selak, Fagor V. Luzuriaga Usurbil, Mondragon Sistemas de Información, Latz, Tximela, Hator Aholkularitza, Orona, TSST, Deman, AMR Refractorios, eta hainbat finantza erakunde, eta bestetik, datu garrantzitsuak ere, hizkuntza-zerbitzuen merkatua 10.500 milioitik gorakoa dela munduan, eta urtero %20 hazten dela. Atera bada, kontuak.

## Euskaraz lan egin nahi dute

Bukatzeko, eta hasierako hariari helduta, heziketa zikloetako ikasleek hitzaldia entzun ondoren bete zuten galdetegiari emandako erantzunen balorazioaren arabera, %93k uste du hizkuntza-kudeaketa neurri batean baliagarria zaiola enpresari, eta etorkizunean euskaraz lan egin nahiko luketen galdetuta, hiru ikasletik bik neurri bateko adostasuna azaldu dute (%65).

\* *Buruntzaldeko Euskara Batzordeen analisisian oinarritua.*

## Laster hasiko da Lanbide Prestakuntza Programetan izena emateko epea

**U**surbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lankidetzaren ondorio dira Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak. Bi helburu garrantzitsu ditu:

-Lanbide bat ikasteaz gain, eskualdeko enpresetan lan-praktikak egin daitezke, lan-munduan sartzeko aukera handiak zabalduz.

-DBH graduatua lortzeko eta Lanbide Heziketako erdi-mailako ziklotara sartu ahal izateko laguntza eskaini.

### HARTZAILEAK:

-16-18 urte bitarteko gazteak. Egoera berezietan 15 urteko gazteak aukera izango dute programan parte hartzeko.

-DBH graduatua lortu ez duten gazteak.

-Lanbide bat ikasi nahi duten gazteak.

Doaneko ikasketak dira. Ikasle eta gurasoentzako ez du inolako karga ekonomikorik suposatzen. Bi ikasurte dira guztira (2.100 ordu).

### ESPEZIALITATEAK:

Eskualde mailan lan-koordinatua egiten da. Usurbilgo Udalak bi espezialitate eskaintzen ditu:

- Sukaldari-zerbitzari langilea (kamarero-barmana-mahaiak zerbitzatu; gozogintza; okina; sukaldaritza).

- Ile-apainketa eta edergintza laguntzailea.

Andoingo Udalak bi espezialitate eskaintzen ditu:

- Soldadurako langilea.

- Karrozeriako langilea.

### ATE-IREKIAK, IZENA-EMATEA:

Eskualdeko ikastetxeetako orientatzaileentzat "ate-irekiak" antolatu dira apirilaren 28an.

Interesatuak Usurbilgo Udalarekin harremanetan jarri: 943 36 04 65

E-posta: lhi.usurbil@gmail.com

Izen-ematea: apirilaren 29tik uztailaren 16ra bitarte.



# Poza, denona

**A**bsoluzioa gurea da, garaipena Euskal Herriarena, poza denona. Esaldi horrekin laburbildu zuten Egunkaria auziko bost auzipetuek apirilaren 12an Auzitegi Nazionalak jakinarazi zuen epaiaren aurrean egindako balorazioa. Pozik eta esker oneko babesa adierazi zieten guztiei, euskal gizarteari modu berezian, baina aldi berean erne egoteko eskatu, oraindik pieza ekonomikoari lotutako epaiketa burutzeke baitago. Artean, apirilaren 25erako eskerrak emateko ekitaldia deitu dute Bilboko Euskaldunan.

Hedabideen ikusmin handia eragin zuen, Egunkaria auzian auziperatutako bost lagunek- Martxelo Otamendik, Xabier Oleagak, Iñaki Uriak, Txema Auzmendik eta Joan Mari Torreldaik-asteartean eskaini behar zuten agerraldiak. Andoaingo Martin Ugalde Kultur parkea hedabideez bete zen.

## “Zama handia geneukan”

Bost auzipetuen izenean Joan Mari Torreldatik irakurri zuen poztasuna, kezkak, elkartasun eta esker hitzak tar-tekatu zituen oharra. Pozik eta lasaiago daudela adierazi zuen. “Pozik gaude. Pozik daude gure etxeetan, gure familiarak. Zama handia geneukan gainean eta arindu egin da”, zioen. Nahiz oharrak aipatu moduan, kaltea eginda dagoen, “atzerabiderik gabe”.

Poztasunarekin batera, epaiak suposatzen duen garaipena ere ahotan hartu zuten auzipetu ohiek, Auzitegi Nazionalan nahi zuten epai zigortzailea ez dutelako lortu eta Egunkaria birrindu zutela gogorazi arren, “lehenengoaren errautsetatik Berria sortu zen. Hura bai sekulako garaipena”.

## Esker ona usurbildarrentzat

Zazpi urteotako bidean babesa adieraz dieten guztiak eskertu nahi izan zituzten bost auziperatu ohiek pasa den



AUZIPETUAK, ASTEARTEAN  
EGINDAKO AGERRALDIAN.

asteartean egindako agerraldian. Pentsaurrekoaren ondoren, NOAUA!ri egindako adierazpenetan, Torreldaik gogoan izan zituen usurbildarrak ere: “ezin dut ahaztu Usurbilgo herriak hasieratik izan zuen jarrera, zer berotasunarekin hartu ninduen kartzelatik bueltan, eta gerora ere. Alde horretatik gure poza, gu boston esker on bihurtzea nahi genuke, Usurbilgo herriarentzat eta usurbildar guztientzat”, adierazi zuen Torreldaik.

Sarrereren salmenta

bastero KULTURGUNA

kutxa

SERVIKUTXA KULTURAZAINAK  
943 00 12 00  
www.kutxa.net

Andoain Dantzan bastero KULTURGUNA

**“Hermanos de Baile”**  
Adelante artística/Yllana

**APIRILAK 16, Ostirala 20:30h Auditorioan**

ANDOAINGO UDALA

Gizakoko Foru Alfordia

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

# Kalea antzoki bihurtuko da berriz ere

## Apirilaren 24an larunbata ospatuko da III. Kale Antzerki Eguna

**H**il honetako azken larunbatean frontoia, Mikel Laboa plaza, Artzabal edota Kaxkotik barrena osteratxo bat egiten duenak, itxuraldatuta ikusiko du ingurua. Herritarrak edo Usurbila datozen bisitariak kalean, Euskal Herriko txoko desberdinetatik datozen antzezle taldeen emanaldiez gozaten harrapatuko ditu. Gerturatzen ari da apirilaren 24a, antolatzaileen arabera xumea bezain ikusgarria izango den III. Kale Antzerki Eguna.

Maite Agirresarobe herritarrak kale antzerki jaialdia iragartzeko prestatu duen kartelean, iazko edizioako irudi bat ageri da; herritarrak frontoiko harmailetan eta aurrean, antzezle bat emanaldi betean buruz behera. Udalarekin batera, Txerriki Antzerkiko kideek antolatu duten Kale Antzerki Egunaren hirugarren edizioako helburuarekin bat egiten du bertan irudikatutakoak; urtean egun batez bada ere, prestatu duten egitarauarekin herria irauli nahi dute, herritarrak ikuspuntu desberdin bat izatera eta jaialdian parte hartzera bultzatu.

### EUSKAL ANTZEZLEEN TOPALEKU

“Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako antzezleek 9 obra ezberdin eskainiko dituzte”

Aurtengoan ere, adina ez da jaialdira gerturatzeko muga izango. Haur, gazte eta helduentzat, bisitan datozenentzat, eta bereziki, usurbildarrak erakarri nahi dituzte Kale Antzerki Egunera. Antzerkia izango da, aurtengo egitarauko ardatz nagusia. Antolatzaileen esanetan, eguna eguerditik indartsu hasiko da, eta emanaldien maila ona gauerdira arte mantenduko da.

Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako antzezleek 9 obra ezberdin



ARGAZKIAN, IAZKO KALE ANTZERKI EGUNeko SAID BAT.

eskainiko dituzte. Zirkoa, clown estiloa, umorea, koreografia ikusgarriak, edota emanaldi ibiltariak izango dute tartea apirilaren 24ko jaialdian.

### Puntako antzerki taldeak

Aurreko edizioen ostean, lan berriak estreinatzen datozen talde ezagunak izango dira; Alproja zarautzarrak, Lasarte-Oriako Landaberi taldea, urrunagotik Etxauriko Atikus, Luhusoko Kili Kolo Zirko... Eta jaialdia bukatu eta borobiltzeko usurbildarrak; Riki, Txer eta Konpainia bals-a dantzatzeko gonbita luzatuz. Antolatzaileek prestatu duten eskaintzarekin, ukitu desberdin bat eman nahi diote jaialdiari. “Antzerki parrandatik egun pasa polit batera” jauzi egin nahi dute.

### Bezperan, bakarrizketak

Antzerki eguna larunbatarekin ospatuko da, apirilaren 24an, baina bezperan, apirilaren 23an ostirala, umorez betetako bakarrizketa saioak izango dira Artzabalgo tabernan. 23:00etan hasita, hauek izango dira hitz aspertuan arituko direnak: Jone Gorostazu, Olatz Etxeberria eta Xabi Barriola berastegiarrak eta Antigua auzoko Txiki.

### Apirilak 24 larunbata

#### III Kale Antzerki Eguna

12:00h Malas Kompañias Zirko, Bilbo: "Ukelele jauna". Tokia: Artzabal.

12:50h Hortzmuga, Zaratamo: "Olympikas 2012". Tokia: frontoia.

16:00h Teatro Salitre, Bilbo: "On egin, mon amour". Tokia: Artzabal.

17:20h Landaberi, Lasarte-Oria: "Dantzan blai!". Tokia: frontoia.

18:20h La Tirili, Gasteiz: "Gertakizuna". Tokia: Kaxkoa.

19:30h Atikus, Etxauri: "Homo Sapiensaren gainbehera". Tokia: Mikel Laboa plaza.

22:30h Alproja, Zarautz: "Ni banoa". Tokia: Kaxkoa.

23:30h Kilikolo Zirko, Luhuso: "Bi". Tokia: frontoia.

00:40h Riki, Txer eta Konpainia, Usurbil: "Azken Bals-a". Tokia: Kaxkoa.

**Antolatzaileak:** Txerriki Antzerki Taldea eta Udala.

**Oharra:** eurria egingo balu, ikuskizunak frontoian eta Askatasuna plazan burutuko lirateke.

# Txikiak bai baina eskasak ez

Datorren astean, film laburren proiektzioa Sutegin, NOAUA!ren eskutik


**T**opagunea euskara elkartearen federazioak Film Laburren Zirkuitua antolatu du zazpigarren aldiz. Aurrerantzean, zirkuitu honek "Laburbira" izango du izenburu. Apirilaren 12an hasi eta maiatzaren 16ra bitartean, herri ezberdinetan aditzera emango dira euskal zinegileen film laburretako batzuk. Apirilaren 22an, Sutegira iritsiko da Laburbira.

Datorren astean, apirilak 22 osteguna, azken bolada honetan egin diren film labur batzuk ikus ahal izango dira Sutegin. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da eta bertan lan hauek jarriko dira ikusgai: Koldo Almandozen "Ahate pasa"; Telmo

Esnalena "Amona putz!"; Jose Luis Barredo eta Iñigo Garciaeren "Clark eta Boris"; Arkaitz Basterraren "Esaiok"; Iñigo Sanzen "Nora zoaz"; Urko Mauduit eta Ioseba Salaberriren "Odisea etxaldean"; eta "Zorion hutsa", ikasle batzuen artean egina.

Tartean, aktore ezagunak

Film labur hauetan hainbat aktore ezagun aurkituko ditugu. Aldameneko irudian azaltzen dena, esate baterako: Kontxu Odriozolak amonaren papera egiten du "Amona putz!" filmean. Sinopsia laburra bezain argigarria da: "zenbaitetan, ume txikiak dituzten senar-emazteek amonaren falta igartzen dute, zenbaitetan, soilik".



KONTXU ODRIOZOLA DA FILM LABUR HONETAKO PROTAGONISTA.

**LABURBIRA**  
FILM LABURREN VII. ZIRKUITUA

APIRILAK 22 OSTEGUNA  
20:00H SUTEGIN

Noaua!!  
www.noaua.com

LABURBIRA  
2010

## Haur Eskolan matrikulatzeko garaia da

**U**darregi Ikastolako matrikulazio kanpaina otsailean izan zen. Oraingoan, 0-2 urte bitarteko Haur Hezkuntzan matrikulatzeko epea ireki da. 2008-2009 eta 2010ean jaio eta jaioko diren haurren kasua da. Apirilaren 30ean amaituko da matrikulatzeko epea. Informazio gehiago, Eskolan bertan jaso daiteke edota 943 374 061 telefono zenbakira deituz.

### Familia berrien kasua

Familia berrien kasuan, izena emateko garaian “zuzenena eta errazena da Haur Eskolara deitzea eta ordua eskatzea datuak jaso eta emateko”, hala uste du Mariaje Imazek. Idazkaria eta koordinatzailearen artean burutzen dituzte elkarrizketa motzak; haurrari buruzkoak, eta dauden eskaintzen artean familiariei egokien doazkienei buruzko gauzetaz hitz egiteko, gehien bat.

### Jada Eskolan dabiltzaneren kasua

Jada Haur Eskolan haurrak dituztenak, ez badute aldaketarik egin behar edo bestelako eskakizunik ez badute, ziurtatu besterik ez lukete egin beharko, baina Mariaje Imazen esanetan, “egokiena egunero dauden hezitzaileekin eta idazkariarekin nahiz koordinatzailearekin hitz egitea litzateke”.

### Eskaintza, kalitatezkoa

Haur Eskolak, sortu zenetik hona, osasun heziketari, elikadurari, gurasoei zuzenduriko zerbitzu pedagogikoei arreta berezia jarri izan die.

Mariaje Imaz Udarregi Ikastolako zuzendaria ere iritzi berekoa da, oso zaindua dela Haur Eskolaren eskaintza. “Dena den honek ez du esan nahi hobetzeko ez dagoenik eta horretan ari gara, ahal dugun eta dakigun guztia adin horretako haurren eta beren familien



IKASLEAK, ESKOLAKO DILDEI JANA EMATEN.

beharrei erantzuteko ahaleginean”, adierazi digu.

# HAUR ESKOLA

0-2 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO  
2008, 2009 eta 2010ean jaio eta jaloko diren haurrak

• **NON:** Kalezarren

• **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -17.00\*

• **EGUTEGIA:** asteleheneretik ostiralera. Iraila - Uztaila

• **INFORMAZIOA ETA HITZORDUA:**

apirilaren 15etik 30era, 9.30etatik 12.30etara

• **ATE IREKIEN EGUNA:** maiatzak 10 euskaraz 17.30ean eta  
maiatzak 11 erdaraz 17.30ean



OSASUN  
HEZIKETA



ELIKADURA  
EKOLOGIKOA



JANTOKIA



ZERBITZU  
PEDAGOGIKOA  
GURASO ESKOLA



EKIMEN  
BEREZIAK

© 943 374 061

## Ingelerako udaleku irekiak antolatu ditu Udarregi ikastolak

**J**oko, eskulan edota ipuin kontaketuz hornitutako eskaintzarekin, modu desberdin bezain dibertigarrian ingelera ikasteko aukera eskaini nahi du aurtengo udan Udarregi ikastolak. Goizero lau orduz jatorrizko ingeles hiztunekin egoteko aukera izango dute 5-12 urte arteko haur eta gaztetxoek. Udaleku irekietan izen emateko epea zabalik dago, apirilaren 23ra arte.

HH3 eta Lehen Hezkuntza osoko ikasleek ingelera ikasi edota hobetzeko aukera izango dute uda honetan, Udarregi ikastolatik mugitu ere egin gabe. Udaleku irekiak antolatu ditu ikastolak, ekainaren 30etik uztailaren 27ra.

### Talde txikitari ikasiz

Talde txikitari banatuko dira ikasleak, eta talde bakoitzeko monitorea, jatorrizko ingeles hiztun bat izango da.

Denetariko ekintzak antolatuko dituzte; jokoak, eskulanak, antzerki emanaldiak, proiektuak... Hori bai, guztia ingeleraz noski.

### Udalekuak, ikastolan bertan

Saioak goizez izango dira, astelehene-tik ostiralera 9:00-13:00 artean, ikastolan bertan. Eskaintza 5-12 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzendua dago. Matrikulatzeko prezioa, udalekuetan izena eman duen ikasle kopuruaren araberakoa izango da. Udalekuon inguruko argibideekin batera, izen emateko orria jaitsi liteke udarregi.com web orrialdetik. Udaleku irekietan matrikulatzeko epea zabalik egongo da apirilaren 23ra arte.

### Monitorea

Ikastolatik jakinarazten dutenez, monitorea etxean hartzen duenak doan parte hartu ahal izango du udalekuetan



UDALEKUAK UDARREGIN BERTAN  
ESKAINIKO DIRA ETA IREKIAK  
IZANGO DIRA.

hilabetez. Monitorea egoteko etxetik ez balu, udalekuak bertan behera geratuko dira.

## Haurrekin oinarritzko prebentzioa lantzeko ikastaroa

**J**ardunaldi praktikoak antolatu ditu Udalak, gurasoak izan edo izango direnentzat; lehen mailako oinarritzko prebentzioari lotutako saioa. Maitasuna, osasuna, elkar laguntza edota gaitasun kontzeptuak hasieratik lantzea helburu duen ikastaroa gidatzeaz arduratuko da Joxe Ramon Maduit psikologo eta psikoterapeuta reichianoarekin. Lehen mailako prebentzio eta prebentzio komuni-

tarioan aditua eta ASKA erakundeko kidea da bera.

Jardunaldi praktikoak apirilaren 19an burutuko dira Haur Eskolako beheko aretoan, arratsaldeko 18:30etan hasita. Izen emateko epea zabalik dago apirilaren 15era arte, udaletxeko erregistroan. Ikastaroa doakoa izango da. Guraso direnei, haurrak eurekin eramatea proposatzen diete antolatzaileek.

### Datorren astean, euskal ipuinak udal liburutegian

**A**pirilean Liburuaren Eguna ospatu ohi da. Arrazoi hori tarteko, Miriam Mendoza ipuin kontalaria Udal Liburutegian izango da datorren astean.

Apirilaren 22an osteguna, 4 urteko umeei euskal ipuinak kontatuko dizkie arratsaldeko 18:00etan hasita.

**ERRAZKIN**  
*Igeltzeritza S.L.*

Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679

K/ Nagusia 47. Behea A.  
20170 USURBIL

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

©Jandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

**GASA**  
**BERORUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

## Juanjo Estevezek lehen aldiz parte hartuko du Aginagako Mendi Lasterketan

**U**rteak daramatza Behobia-Donostia eta antzeko probetan parte hartzen, baina aurten erronka berri bati heldu dio Juanjo Estevez usurbildarrak; mendiko txapelketetan trebatzen hasi da. Pare bat lasterketetan atera da jada entrenamendu moduan, igande honetan Aginagan burutuko den Mendi Lasterketan estreinakoz parte hartzera baitoa.

**NOAUA!** Egun gutxi geratzen da lasterketarako, prestakizun lanak zer moduz doaz?

**Juanjo Estevez.** Astean lau egunetan entrenatzen nabil. Andatza inguruan, aldapak igozen.

### JUANJO ESTEVEZ

“Urtean bi lasterketa ditugu herrian eta oso polita da etxean bertan parte hartu ahal izatea”

**N.** Prestaketa lanak gogortu dituzu egunotan?

**J. E.** Orain bai. Asteazken edo ostegunera arte korrika gogor egiten dut, baina gero ostirala lasai hartzen dut.

**N.** Mendiko probetan aurten hasi zara parte hartzen?

**J. E.** Orain arte beti Behobia-

Donostian eta inguruko herrietako lasterketetan parte hartu izan dut. Aurten lehen aldiz, Najeran (Errioxa) maratoi erdia egin nuen. Berako maratoi erdian parte hartu berri dut. Aginagako Mendi Lasterketari begira, entrenamendu modukoa izan da.

**N.** Aginagan bezala, lasterketa eremu ezagunean burutzea, abantaila da zuretzat?

**J. E.** Agian bai. Ibilbidea alde aurretik ezagutzen duzu. Bide zati gogorrena, badakizu zein izango den. Aldi berean ordea, bertako partaide asko daude. Beraz, alde horretatik abantaila handirik ez dut izango.

**N.** Mendi lasterketak ezagututa, errepidekoak baino nahiago dituzu?

**J. E.** Hobe mendikoak, beste saltsa bat dute. Errepidekoak monotonoagoak dira; hemendik Zubietara, joan etorri... Mendikoa niretzat gogorragoa, baina politagoa da.

**N.** Beste proba batzuetan parte hartzeko asmorik ba al duzu?

**J. E.** Berako erdi maratoiarekin batera, bada beste bat Pagoetan eta bertan parte hartzeko asmoa dut. Erabat harripatu nau kirol jarduera honek.

**N.** Herri lasterketek geroz eta parte hartze handiagoa dute. Zer dela eta zure ustez?



JUANJO AURTEN HASI DA MENDI LASTERKETETAN PARTE HARTZEN.

**J. E.** Harrapatzen zaituzte. Aste bat kirolik egin gabe pasa izan dudanean, faltan sumatzen dut. Probetan ikusten duzu jendea, zure lagunak, zure lagunak eta probatzeko gogoia ematen dizu. Jendeak probatu eta zaletu bihurtzen da.

**N.** Noiztik zabilta lasterka?

**J. E.** Aspalditik. 2000. urte inguruan hasi nintzen Behobia-Donostian parte hartzen, koadrilarekin. Bederatzi edo hamar bat urtez egin dut. Azpeitia-Azkoitian ere atera izan naiz. Hemen inguruko proba guztietan parte hartzen dut.

### Sari potoloak eta hamaiketako ederra

**P**roba amaieran, sari potoloekin batera, antolatzaileek hamaiketako doan banatuko dute parte hartzaile eta bertaratutako diren ikusleen artean.

Iazkoarekin alderatuta, Aginagako Mendi Lasterketako zirkuitua asfalto gutxiagokoa eta menditsuagoa izango omen da.

Lasterketan parte hartu nahi duenak, 10 euroren truke alde aurretik izena emateko aukera du oraindik herrikrossa.com web orrialdean. Bestela proba egunean bertan, igande honetan, 9:30etik 10:30era Aginagako frontoian bertan izena eman ahal izango du, 15 euroren truke.

### 300 metroko igoera

**Luzera:** 14 km.

**Probaren hasiera:** 11:00.

**Irteera eta helmuga:** Aginagako Ariztitxo pilotalekua.

**Altuera maximoa:** 300 metro.

**Izen ematea:** alde aurretik 10 eurotan, herrikrossa.com

web orrialdean. Egunean bertan 15 euro, 9:30-10:30.

**Iazkoan,** 144 lasterkari.

# Usurbil Cup txapelketan, izen ematea zabalik

**K**iroltasuna oinarri izango duen Usurbil Cup txapelketa jokatu da udaberri honetan ere. Antolaketa lanetara itzuli den Usurbil Futbol Taldeak izen emateko epea zabaldu du jada. LH eta DBHko ikasleek parte har dezakete. Partidak maiatza bukaeran hasiko direla aurreikusten da.

6-16 urte arteko gaztetxoek zuzendutako futbol txapelketa ospatuko da aurten ere, udaberri partean. Usurbil Cup antolatzen ari da Usurbil Futbol Taldea. Jada, izena emateko tartea finkatu dute. Epea ostiral honetatik, apirilak 16tik hilaren 30era arte luzatuko da Oiardo Kiroldegian. Maila hauetako talde usurbildarrek parte hartu ahal izango dute txapelketan: minibenjaminek (LH 1-2), benjaminek (LH 3-4), alebinek (LH 5-6), infantilek (DBH 1-2) eta kadete mailakoek (DBH 3-4).

## IZEN-EMATEA, KIROLDEGIAN

“Taldea bakoitzak 40 euro ordaindu beharko du izena ematerakoan”

Izena ematerakoan, gutunazal baten barruan datu hauek aurkeztu beharko dira: jokalarien izen abizenak eta jaiotze data, taldeko entrenatzaile edo arduradunaren NAN fotokopia, taldearen izena eta zer mailatan jokatu duten. Mutil edo neskenak, eta talde mistoak ere osa litezke, gehienez jota hamar jokalarikoak. Talde bakoitzak 40 euroko kuota ordaindu beharko du

izena ematerakoan.

Txapelketaren egutegia kirol ekimenean parte hartuko duen talde kopuruaren arabera zehaztuko da. Baina antolatzaileek aurreikusten dutenez, maiatzeko bigarren hamabostaldian hasiko da Usurbil Cup. Asmoa, azken neurketak Santixabeletan jokatzeko litzateke.

## Antolatzaile, Usurbil FT

Urtebeteko etenaldiaren ostean, Usurbil Cup txapelketa prestatzeko lanetara itzuli da Usurbil FT. Iazko antolatzaileen lana eskertu nahi dute futbol taldeak.

## Kiroltasuna, oinarrizkoa

Lehiakortasun kutsuko hainbat jarrera sailhatsi nahi ditu Usurbil FT-k, Usurbil Cup ekimenean. Herri giroko eta lagun arteko egitasmoa izanda, haur eta gaztetxoak neurketetan ondo pasatzea bultzatu nahi dute. “Haurrak ilusioz bizitzeko tresna bat da”, adierazi dute Usurbil FT-tik.

Jokalarien artean elkar laguntza eta elkarbizitza bultzatu, irabazi eta galtzea zer den ikasi eta jokalariei bakoitzaren autonomia ere landu nahi da. Tentsio, exigentzia edota antsia eragin dezaketen jarrera desegokiak baztertu eta kiroltasuna, jokalariei zuzendutako mezu baikorrak, eta lasaitasuna bultzatu nahi dute partidetan. Sor litezkeen gatazketan bitartekari edota oreka lanak burutzeko antolatzaileek ezinbestekotzat jotzen dute kasuan kasuko entrenatzaile eta gurasoen laguntza. Antolatzaileak ere noski, halako jarrerak zaintzeko lanetan jardungo dute, txapelketak iraun artean.



MAIATZEAN HASIKO DA USURBIL CUP, BAINA ALDEZ AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DA.

## Eskubaloiko kadete neskak, Euskadiko Txapelketan

**E**uskal Ligan bigarren postuan sailkatu ondoren, asteburu honetan, apirilaren 16tik 18ra, Euskadiko Txapelketa jokatzeko aukera izango du Usurbilgo eskubaloiko kadete mailako nesken taldeak. Ermuan hiru neurketa jokatu dituzte; bat etxekoen aurka, eta beste bietan, Zarautz eta Basauri izango dituzte aurrez aurre. Entrenatzaileek gogorarazi dutenez, lehia ikusgarria izango da, maila handia baitago. Taldea gogotsu doala iragarri dute.

## Jubenilak, Espainiako Sektorean

Apirileko azken asteburuan berriz, martxoan Euskadiko Txapelketan parte hartu zuten jubenil nesken txanda izango da berriz. Espainiako Sektorea jokatuko dute.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
Tf 36 21 64  
USURBIL

Josue  
Igeltseritza:  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

txirriStra  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466  
piatxoak  
ogitartekoak  
piater konbinatuak  
**TABERNA**

## Usurbil-Mendizorrotz-Kukuarri-Aginaga-Usurbil mendi ibilaldia

**U**surbilgo Andatza Mendizale Elkartek antolatu du ibilaldia eta datoren astean egingo da, apirilaren 25ean igandea. “Urtero legez, apirilaren, mendi martxa edo ibilaldi bat antolatu dugu eta aurtengoa Usurbilen hasi eta bukatuko da: Usurbil-Mendizorrotz-Kukuarri-Agiña-Usurbil”, adierazi digute Andatza taldeko kideek.

Ibilbidea Mendizorrotz eta Kukuarri inguruan burutuko da eta kostaldeko paisaia ederraz gozatzeko aukera izango da, izan ere, ibilbidearen zati batean itsasoaren ondo-ondoan ibiltzeko aukera dago eta itsas-labar eta inguru ikusgarriez gozatzeko aukera polita izango da. Horretaz gain, Usurbilgo auzo, herri-bide eta landa inguruak ezagutzeko aukera ezin hobea ere eskaintzen du mendi ibilaldi honek.

**Eguna:** apirilak 25 igandea.

**Irteera:** Andatza Mendizale Elkartearen egoitza aurretik irtengo da ibilaldia (Udaletxe plaza).



MENDI IBILALDIA KUKUARRITIK IGAROKO DA.

**Ordua:** 8:00.

**Iraupena:** 5-6 ordu inguru.

**Sendagile eta hornialdi zerbitzuak:** ibilaldian zehar, leku jakinetan. Anoa postua, Orioko Bentan egongo da.

**Bukaeran opariak:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko dira.

**Izen ematea:** egun berean egin beharko da: 10 euro.

## NOAUA!ko balantzeak eta egitasmoak

**M**artxoaren 30ean, NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen batzar nagusia deituta zegoen. 2009ko memoria zein balantze ekonomikoa eta 2010erako egitasmoak zein aurrekontuak eskura ditzakete interesa agertzen duten bazkideek.

2009ko balantzea ona izan da maila ekonomikoa. Eta zentzu horretan, 2010 urterako aurreikuspenak ere bide berean doaz.

2010erako egitasmoen artean, astekariaren diseinu aldaketa burutu nahi da. Baina lehenik eta behin, astekariaren gaineko hausnarketa bat egin nahi da. NOAUA!ren inguruko iritziak bilduko dira eta bazkideek hausnarketan



WWW.NOAUA.COM WEBGUNEAN HAINBAT BERRIKUNTZA EGIN DIRA.

partehartzeko aukera izango dute.

Webguneari dagokionez, atal berri batzuk jarri dira martxan, NoauaTB adibidez, eta sare sozialekin lotzeko bidea eman zaie [www.noaua.com](http://www.noaua.com) web orrialdeko albisteei.

**LURRALDE BUS**

**ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL**

Irteera Usurbil	Irteera Astigarraga
<b>ASTELEHEN-LARUNBATERA</b> 07:15- 7:45- 08:15- 08:45 09:15- 10:15- 11:15- 12:15 12:45- 13:15- 13:45- 14:15 14:45- 15:15- 16:15- 17:15 18:15- 18:45- 19:15- 19:45 20:15- 20:45- 21:15- 21:45 22:15	<b>ASTELEHEN-LARUNBATERA</b> 07:00- 7:30- 08:00- 08:30 09:00- 09:30- 10:30- 11:30 12:30- 13:00- 13:30- 14:00 14:30- 15:00- 15:30- 16:30 17:30- 18:30- 19:00- 19:30 20:00- 20:30- 21:00- 21:30 22:00
<b>IGANDE-JAIEGUNETAN</b> 15:15- 16:15- 17:15- 18:15 19:15- 20:15- 21:15- 22:15	<b>IGANDE-JAIEGUNETAN</b> 15:00- 16:00- 17:00- 18:00 19:00- 20:00- 21:00- 22:00

**URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL**

**ASTELEHENETIK-OSTIRALERA**

**Usurbil → Urnieta**

USURBIL	SANTUENEA	ZUBIETA	LASARTE	URNIETA
07:15	07:20	07:25	07:30	07:45
08:15	08:20	08:25	08:30	
09:15	09:20	09:25	09:30	09:45
12:30	12:35	12:40	12:45	13:00
13:30	13:35	13:40	13:45	
14:30	14:35	14:40	14:45	15:00
18:30	18:35	18:40	18:45	19:00
19:30	19:35	19:40	19:45	
20:30	20:35	20:40	20:45	21:00

**ASTELEHENETIK-OSTIRALERA**

**Urnieta → Usurbil**

URNIETA	LASARTE	ZUBIETA	SANTUENEA	USURBIL
07:45	07:00	07:05	07:10	07:15
	08:00	08:05	08:10	08:15
09:45	09:00	09:05	09:10	09:15
	10:00			
	12:15	12:20	12:25	12:30
13:00	13:15	13:20	13:25	13:30
	14:15	14:20	14:25	14:30
15:00	15:15			
	18:15	18:20	18:25	18:30
19:00	19:15	19:20	19:25	19:30
	20:15	20:20	20:25	20:30
21:00	21:15			

**TSST autobusak**

**ZUBIETA-LASARTE**

**KANEGUNETAN**

Zubieta-Lasarte: 7:25 / 08:25 / 09:25 / 12:40 / 13:40 / 14:40 / 18:40 / 19:40 / 20:40  
Lasarte-Zubieta: 7:00 / 08:00 / 09:00 / 12:15 / 13:15 / 14:15 / 18:15 / 19:15 / 20:15

**LARUNBATEAN (DIRA LANAK AMAITZEA)**

Zubieta-Lasarte: 08:15 / 12:45 / 15:05 / 21:35  
Lasarte-Zubieta: 08:10 / 12:40 / 15:00 / 21:30

**JAI EGUNETAN (DIRA LANAK AMAITZEA)**

Zubieta-Lasarte: 11:30 / 13:30 / 15:30 / 21:35  
Lasarte-Zubieta: 11:15 / 13:25 / 15:25 / 21:30

Busen erantsle bakoitzeko [www.tsst.info](http://www.tsst.info) ☎ 943 36 17 41

**BUS-TAXI**

Abuztuaren 16tik Otsailera  
☎ 630 64 35 96\*

COBI EGUNAK	ORDUAK
1 Usurbil kaxkaxa	7:30 10:30 13:00 15:30 19:00
2 Kaluzur	7:32 10:32 13:02 15:32 19:02
3 Iarrea	7:35 10:35 13:05 15:35 19:05
4 Ibarrola	7:38 10:38 13:08 15:38 19:08
5 Arratzain	7:42 10:42 13:12 15:42 19:12
6 Txartxon	7:45 10:45 13:15 15:45 19:15
7 Urdajra	7:48 10:48 13:18 15:48 19:18
8 Aginaga	7:55 10:55 13:25 15:55 19:25
9 Txokoalde	8:00 11:00 13:30 16:00 19:30
10 Urdajra (buztina)	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
11 Santuenea	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
12 Usurbil kaxkaxa	8:05 11:05 13:35 16:05 19:35
13 Santuenea	8:10 11:10 13:40 16:10 19:40
14 Amiri	8:12 11:12 13:42 16:12 19:42
15 Etxez ingurua	8:14 11:14 13:44 16:14 19:44
16 Alkortaenea	8:17 11:17 13:47 16:17 19:47
17 Zubieta	8:22 11:22 13:52 16:22 19:52
18 Zubierdi	8:27 11:27 13:57 16:27 19:57
19 Usurbil kaxkaxa	8:30 11:30 14:00 16:30 20:00



## Agenda !

### Apirilak 16 ostirala

- "Etxean suaren arriskuetaik babes-tu zaitez", hitzaldia Artzabalen, 17:30.

### Apirilak 19 astelehena

- "Maitasuna, osasuna, elkar laguntza eta gaitasuna hasieratik lantzen", 18:30ean hitzaldia Haur Eskolan.

### Apirilak 22 osteguna

- "Bizkarra eta artikulazioak nola zaindu", 17:30ean hitzaldia Artzabalen.  
- Miriam Mendoza ipuin kontalaria Udal Liburutegian, 18:00etan.  
- Laburbira, euskarazko film laburren proiektzioa Sutegin, 20:00etan.

## Goardiako farmaziak

**Apirilak 15, osteguna**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Apirilak 16, ostirala**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Apirilak 17, larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 18, igandea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 19, astelehena**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 20, asteartea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Apirilak 21, asteazkena**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 22, osteguna**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Apirilak 23, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Apirilak 24, larunbata**  
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Apirilak 25, igandea**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Chucua farmazia (22:00-09:00),  
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*  
*\*Usurbilen, soilik eguerdira arte*

## Osasun alorreko hiru hitzaldi antolatu ditu Gure Pakea elkarteak

**G**omendioak, informazioa eta batez ere, osasuna hizpide izango dute Gure Pakea elkarteak eta Kutxak apirilera antolatu dituzten hiru hitzaldietan. Denetariko gaiak jorratuko dituzte; saio batean, komunikazioa eta laguntasunak duten garrantzia, bestean suaren prebentzioari buruz jardungo dute edota gorputz zainketen gaia ere jorratuko dute. Hitzaldiak ordu eta leku berean izango dira, 17:30ean Artzabalgo egoitzako areto nagusian.



ETXEAN SUAREN ARRISKUAZ  
HITZ EGINGO DA ASTE HONETAKO  
HITZALDIAN.

### Apirilak 16, ostirala

"Etxean suaren arriskuetaik babestu zaitez". Artzabalen, 17:30.

### Apirilak 22, osteguna

"Bizkarra eta artikulazioak nola zaindu". Artzabalen, 17:30ean.

### Apirilak 27, asteartea

"Komunikazioa eta laguntasuna, bizitza osasuntsurako giltzarri". Artzabalen, arratsaldeko 17:30ean.

## Herri Arteko Pilota Txapelketan, Alegia lehen aurkaria

**H**erri Arteko Pilota Txapelketa asteburu honetan hasiko da.

Usurbilgo taldearen lehen aurkaria Alegia izango da. Joaneko partidak larunbat honetan jokatuko dira Alegian, goizeko 9:30etik aurrera. Eta itzulerakoak datorren astean Usurbilen. Alegiari irabaziko balio, Azkoitiaren kontra jokatuko behar luke Usurbilgo taldeak, maitezko lehen bi asteburuetan.

## Santixabel Pilota Txapelketa larunbat honetan hasiko da

**J**aiak urruti daude. Orduan jokatuko ohi dira Santixabel Pilota Txapelketako finalak, jubencil zein nagusien mailakoak. Aurten, nagusien artean 43 bikote arituko dira eta jubencilen artean, 25 bikote. Herrialde ezberdinetatik etorriko dira txapelketa hau jokatuzera. Lehen norgehiagokak, ordea, asteburu honetan jokatuko dira Usurbilgo frontoian. Larunbatean zein igandean, goizeko 10:00etan hasita.

**BENTA  
TABERNA**  
Oilasko erreak  
Ogitartekoak  
San Ignacio 1, behea  
USURBIL 943 36 93 05

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirrelektrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

## ETXEBIZITZA

- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, komuna, sukaldea eta trasteroa. Dena berrituta, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. 686969112
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Etxebizitza bat alokatzen da Usurbilen, erdigunean. Abala beharrezkoa. Gauze dituzte. 646 537 253.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. Interesaturik bazaude deitu telefono honetara: 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko exeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai. 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailaen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua eta beti garajea egondakoa. 669353942
- Kotxe bat daukat salgai: Oso egoera onean, beti garajea. Honda Civic bat da 3 atekoa, prezioa interesgarria. Tlf 656742089
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai.

- Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terreneak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro koadroko lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpizatetik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

## Lan-eskaintzak

- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10tatik arratsaldeko 4 arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Urte asko herrian daramatzan emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi marga. 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten dituzte, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendiari edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen dituzte,

- edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
- Wii kontsolararen softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garrantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen dituzte. Bideoak montatzen dituzte bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Bideo-muntaia egiten dituen pertsona bat behar dugu. 943 374061.
- 160 luzera x 30 zabalerara x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. 609099824.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Ximio!** Aurtengoa izango ote da pankarta honen atzean jarri beharko dugun azkena? Hala bedi!  
Badaezpada ere prestatzen joan hadi, hurrengo urtebetetzean belarriak gorri-gorri jarriko dizkiagu-eta!



**Zorionak Ziru!** Martxoaren 21ean izan hituan hire urteak baina, gogoratu gaituk hitaz. Ondo ondo pasako huelakoan, ia "lagunak" noiz gonbidatzen hituan afaritara. Hire fansak!



**Zorionak maitia!** Apirilaren 8an egin zenituen 2 urte. Zorionak eta muxu potoloak amatxo eta aitaxoren partez!



**Zorionak Aitor!** Apirilaren 11n 10 urte bete zenituelako. Agiñako eskolako lagunak.



**Zorionak Xuban!** Apirilaren 4an egin dituzu 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez. Ondo pasa!

## HILDAKOAK

**Marcelino Fernandez Gallego**  
Martxoaren 28an hil zen  
91 urterekin



## HILDAKOAK

**Mari Cruz Segurola Bilagaran**  
Apirilaren 2an hil zen  
82 urterekin



## JAIOTZAK

**Ane Ugarte Matxinandiarena,** martxoak 13.  
**Malen Aizpuru** Biurrarena, apirilak 2.  
**Irene Azpiroz Ivanushkina,** apirilak 3.

# osasun gida

## Optika



**USURBIL  
OPTIKA**

Plaza de la Libertad, 10 • 48901 USURBIL (Bizkaia)  
TEL: 943 370 269 • www.usurbiloptika.com

Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 269

## Fisioterapia



**FISIOTERAPIA ZENTROA**  
**Ibaiondo**

Fisioterapia  
Osteopatia  
Errehabilitazioa  
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

## Masajista



**Kima**  
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197  
Kafe Nagusia, 44- beheka • LASARTE-ORIA

## Farmazia



**iturralde  
botika**

Tomas Iturralde botika  
R.F.S. Nº 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatiakoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95


## Hortz klinika

*Huginak ondo dabiltzaneun, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 ☎ 943 37 08 78 USURBIL



## “OLARRONDOKO GAUAK”

- Ostiral eta larunbatetan apirila azkenerarte, **GAU GIROA**, DJ Izania gaueko 12tik aurrera.
- Helduentzako urtebetetzeak: (tarta aukerarekin)
  - Despedidak (guk antolatzeko aukera)

## MENUA

Eguneroko menua.

**OSTIRAL GAUA BARNE**

**MENUA 16€**

edaria, ogia eta  
kafea barne

**Olarrondo Jatetxea**

5 zenbakia. USURBIL

erreserbak: ☎ 943 360 376

[www.olarrondo.com](http://www.olarrondo.com)